

3.5 ZITOLOGIAK CITOLOGÍAS

DEFINIZIOA

Umetoki-lepoko minbizia, EAEn intzidentzia baxua duen neoplasia bat da. Zehazki, 2004. urtean 87 kasu berri diagnostikatu ziren; eta 2006. urtean, 29 emakume hil ziren arrazoi hori zela-eta. Gainera, goiz diagnostikatzen bada senda daitekeen neoplasia bat da. Patologia horren diagnostiko goiztiarra, sexu-harremanak izan edo izan dituzten emakumeei zitologiak aldizka egitean oinarritzen da. Banakako ikuspuntutik, garrantzitsua da zitologiak egiten hasten den adina eta haien aldizkakotasuna. Populazioaren ikuspuntutik, berriz, zerbixeko minbizia goiz detektatzeko programek emaitza hobereak eskuratzen dituzte xede-populazioaren estaldura altuak lortzen direnean. Euskal sistema publikoan, 1999. urteaz geroztik, baheketa oportunistak egiten ari da; eta duela gutxi, baheketa-programa antolatu bihurtzeko zenbait aldaketa proposatu dira. Oro har, lotura duten arrisku-faktorik ez duten emakumeentzat, erakunde nazional eta nazioarteko erakundeen gomendio berrienei jarraiki aipatutako programak, zera gomendatzen du: zitologia bat egitea hiru urtean behin 25 urtetik aurrera edo sexu-harremanak hasi eta hiru urtera. Esandakoaz gain, 65 urterekin baheketa bukatzea gomendatzen da.

OSASUN INKESTA 2007

25 urtetik 64 urtera arteko emakumeen %63,6k zitologia bat egin zuen azken 2 urteetan, eta adin horretako emakumeen %13,4k ez zuen inoiz prebentziozko proba hori egin. Estaldura altu horiekin konparatzean, deigarria da zitologia bat inoiz egin ez duen 65 urtetik gorako emakumeen portzentaia (%45) (3.5.1. irudia).

Zitologiak egitean oraindik gradiente sozioekonomikoa dagoela nabaritzen da. Beraz, egoera txarrean dauden taldeetako emakumeak izan ziren proportzio handiagoan (%15,4) zitologia bat inoiz egin ez zutenak; egoera hori, halaber, nabarmenagoa izan zen 65 urtetik gorako emakumezkoen kasuan (%47,8) (3.5.2. irudia).

DEFINICIÓN

El cáncer de cuello de útero es una neoplasia que presenta una baja incidencia en la CAPV. Concretamente en el año 2004 se diagnosticaron 87 nuevos casos y 29 mujeres fallecieron por esta causa en el año 2006. Además, es una neoplasia que puede ser curada si se diagnostica precozmente. El diagnóstico precoz de esta patología se basa en la realización de citologías regulares a las mujeres que mantienen o han mantenido relaciones sexuales. Desde un punto de vista individual, es importante la edad de comienzo de realización de las citologías y su periodicidad. Desde un punto de vista poblacional, los programas de detección precoz de cáncer de cérvix obtienen los mejores resultados cuando se consiguen altas coberturas de la población diana. En el sistema público vasco se venía realizando desde el año 1999 un cribado oportunista para el que recientemente se han propuesto diversas modificaciones que lo convierten en un programa de cribado organizado. De forma general, para las mujeres sin factores de riesgo asociados, dicho programa recomienda, en línea con las recomendaciones más recientes de organismos nacionales e internacionales, la realización de una citología cada tres años a partir de los 25 años de edad o a los tres años del inicio de las relaciones sexuales y asimismo recomienda la finalización del cribado a la edad de 65 años.


ENCUESTA DE SALUD 2007

El 63,6% de las mujeres de 25 a 64 se realizó una citología en los dos últimos años y un 13,4% de las mujeres de esta edad nunca se habían realizado esta prueba preventiva. Comparativamente con estas altas coberturas, resulta llamativo el porcentaje de mujeres mayores de 65 años que nunca se habían realizado una citología (45%) (Figura 3.5.1).


Sigue existiendo un gradiente socioeconómico en la realización de las citologías. Así, las mujeres de los grupos más desfavorecidos fueron las que nunca se habían realizado una citología en mayor proporción (15,4%), situación que se hizo más acusada en las mujeres mayores de 65 años (47,8%) (Fig. 3.5.2.).

3.5.1. irudia / figura 3.5.1

Emakumeak (%), zitologiaren aldizkakotasunaren arabera eta adin-taldeak kontuan hartuta, 2007
Mujeres (%) según la periodicidad de la citología por grupos de edad, 2007

**3.5.2. irudia / figura 3.5.2**

Zitologia bat inoiz egin ez duten emakumeak (%), adina eta talde sozioekonomikoa kontuan hartuta, 2007
Mujeres (%) que nunca se han realizado una citología por edad y grupo socioeconómico, 2007

**1997. URTEAZ GEROZTIKO EBOLUZIOA**

1997. urteaz geroztik, adin-talde guztietan gora egin du alde aurretiko bi urteetan zitologia bat egin duten emakumeen proportzioak. Hortaz, umetoki-lepoko minbizia goiz detektatzeko programaren xedetaldean (25 urtetik 64 urtera), alde aurretiko bi urteetan zitologia bat egin duten emakumeen proportzioa 2002an %57koa izatetik, 2007. urtean

EVOLUCIÓN DESDE 1997

Desde 1997 ha aumentado la proporción de mujeres que se han realizado una citología en los dos años previos en todos los grupos de edad. Así, en el grupo diana del programa de detección precoz de cáncer de cuello de útero (25 a 64 años), la proporción de mujeres que se habían realizado una citología en los dos años previos ha pasado del 57% en 2002, al

%64koa izatera igaro da. 2002an, 25 urtetik 64 urtera arteko emakumeen %21,7k aitortu zuen ez zuela inoiz zitologia bat egin; eta 2007. urtean proportzio hori %13,4ra murriztu egin da (3.5.3. irudia).


64% en 2007. En 2002, el 21,7% de las mujeres de 25 a 64 años declararon no haberse realizado nunca una citología, mientras que en 2007 esta proporción se ha reducido al 13,4% (Figura 3.5.3).

2007an, 25 urtetik 64 urtera arteko emakumeen %87k noiz edo noiz zitologia bat egin zuen. 2002ko datuei dagokienez, proportzio horrek 9 puntuko gehikuntza bat adierazten du (3.5.4. irudia).

En 2007, el 87% de las mujeres de entre 25 y 64 años se había realizado una citología en alguna ocasión. Con respecto a los datos de 2002, esta proporción supone un incremento de nueve puntos (Figura 3.5.4).


3.5.3. irudia / figura 3.5.3

Aldez aurretiko bi urteetan zitologia bat egin duten emakumeak, adin-taldea kontuan hartuta, 1997-2007
Mujeres que se han hecho una citología en los dos años previos por grupos de edad, 1997-2007



3.5.4. irudia / figura 3.5.4

Noiz edo noiz zitologia bat egiten duten emakumeak, adin-taldea kontuan hartuta, 1997-2007
Mujeres que se han hecho en alguna ocasión una citología por grupo de edad, 1997-2007



Era berean, gora egin du azken bi urteetan zitologia bat egin duten talderik txarrenetako 25 urtetik 64 urtera arteko emakumeen proportzioak, eta desberdintasuna murriztu egin da prebentziozko praktika horretan. 1997an talderik txarrenetako %52k zitologia bat egin zuen, baina 2007. urtean proportzio horrek %61eko igoera izan du. Talderik txarrenean daudenen artean, proportzioa orain dela 10 urtekoaren antzekoa izan da (%68) (3.5.5. irudia).

De la misma manera, ha aumentado la proporción de mujeres de 25 a 64 años de los grupos más desfavorecidos que se han hecho una citología en los últimos dos años, disminuyendo la desigualdad en esta práctica preventiva. En 1997 el 52% de aquéllas de grupos más desfavorecidos se había hecho una citología, mientras que en 2007 esta proporción ha aumentado hasta el 61%. Entre las de los grupos más favorecidos, la proporción se ha mantenido similar a la de hace 10 años (68%) (Figura 3.5.5).

3.5.5. irudia / figura 3.5.5

Aldez aurretiko bi urteetan zitologia bat egin duten 25 urtetik 64 urtera arteko emakumeak, talde sozioekonomikoa kontuan hartuta, 1997-2007

Mujeres de 25 a 64 años que se han hecho una citología en los dos años previos por grupo socioeconómico, 1997-2007

